



Iruñeko Udalaren 2015eko Memoria

Kultura

Civivox Sarea

Iruñeko Udalaren Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorrak kudeatzen du Civivox zentroen sarea. 2015ean, **682.181 erabiltzaile** izan ditu; 2014an, berriz, 634.827 izan zituen. 682.181 horietatik, 380.872k parte hartu zuten udal programaren 1.371 jardueretako batean (iaz baino 104 gehiago) eta gainerako 301.309 erabiltzaileek eremuen lagapen-zerbitzua erabiltzen dute. Hona sarea osatzen duten zentroek: Kondestable Civivoxa, Juslarrocha Civivoxa eta Zabalguneako, Iturramako, Mendillorriko, Milagrosako eta Sanduzelaiko civivoxak. Zifra horiek altuenak dira datu historikoak erabilgarri ditugunetik.

Civivoxetan **lagatako eremuetara** joaten den pertsona kopurua % 7 handitu da. Mota guztietako 626 (2014an 553 izan ziren) elkarte, kolektibo edo erakundetakoak ziren. 301.309 erabiltzaileetatik, 196.827 izaera iraunkorreko jarduerak egitera joaten dira, 69.348 aldian behin joaten dira, eta 35.134 udalaren beste alor batzuek civivoxetan egiten dituzten jardueretan parte hartzen dute. Aretoak lagatzeari dagokionez, 26.500 ordutan utzi ziren. Iturramako zentroa da gehien eskatzen dena, eta, gero, Juslarrocha eta Kondestable datoz.

2015eko urtariletik abendura lagatako aretoak	Entitateak	Erabilerak	Orduak	Erabiltzaileak
Kondestable	142	2.467	5.565	56.606
Zabalgunea	42	415	817	8.198
Iturrama	119	4.061	6.634	114.268
Juslarrocha	133	2.823	6.268	56.246
Mendillorri	72	1.091	2.656	27.043
Milagrosa	38	578	1.153	11.007
Sanduzelai	80	1.423	3.787	27.941

Guztira	626	12.859	26.879,25	301.309
----------------	------------	---------------	------------------	----------------

2015ean, 1.371 **jarduera** antolatu ziren, 380.872 parte-hartzailerekin. Iturramakoa da parte-hartzaile gehien bildu zituen zentroa, 100.885 baitira. Kondestable jauregiko kopurua ere nabarmentzeko modukoa da: 88.063 pertsona. Haietako askok, gainera, erakusketak ikusten dituzte, jauregia bisitatzeaz gain.

Jardueren artean, diziplina ugariri buruzko ikastaro sorta zabala eskaintzen da, hala nola arte plastikoak, argazkigintza, informatika, dantza, kirola, sukaldaritza, literatura, buruaren eta gorputzaren ongizatea, eta musika. Zehazki, 654 ikastaro eskaini ziren (634, 2014an), eta 141.842 lagunek parte hartu zuten (139.483 izan ziren aurreko urtean). Era berean, 5.693 lagun bertaratu ziren Civivox sarean egindako 130 tertulia eta hitzaldietara, 2014an baino ia 2.000 gehiago; eta antolaturiko 98 txango eta bisita gidatuetara, berriz, 1.939 herritar joan ziren. Udal-zentro horietan egin diren ekitaldien artean, 244 jai eta ikuskizun aipatu behar dira; haietan, 57.407 lagunek parte hartu zuten. Bestalde, 1.672k eman zuten izena antolatutako 8 lehiaketetan (argazkia, gozogintza, eguberrietako txartelak eta marrazkia, kasu) Erakusketa-eskaintza ere da aipatzekoa, urte osoan egiten baitira zazpi zentroetan. 2015ean, 94.961 bisitari izan zituzten. Azkenik, 13.973 pertsona joan ziren 60 zinema-emanaldietara, eta 1.241, gainerako jardueretara. Zifra horiei, honako hauek erantsi behar zaizkie: internetera konektatzeko guneen 22.417 erabiltzaileak, irakurketa-aroetara joaten diren 10.000 pertsonak eta Iturramako hiri-bainuetxera joaten diren 29.834 lagunak.

Eskaintza horren barnean daude udan aire zabalean egindako jardueren datuak ere; horietan daude, beraz, Zinemako gauak zikloan proiektatutako 22 filmetakoren bat ikusi zuten 12.570 pertsonak, baita ikastaroren batean izena eman zuten 2.000 lagun baino gehiago horiek ere. Era berean, astelehenetik larunbatera Zitudadelan arratsaldeetan antolatutako ikuskizunen 26.000 ikusleak aintzat hartuta, 1.168 pertsona joan ziren, batez beste, programatutako 25 kontzertuetako bakoitzera; zifra hori iazko kontzertuetara joandako kopurua ia halako bi da, 661 bertaratu baitziren orduan.

Jarduerak		Tertuliak/ Ikastaroak		Txangoak/ Jaiak/ ikuskizunak		Lehiaketak Erakusketak		Zinema	Beste Jarduerak batzuk	Jarduerak batzuk guztira
2015eko	urtarrila- abendua									
Kondestable	90	51	36	39	1	24	--	47	288	
Zabalgunea	89	16	10	17	--	7	5	4	148	
Iturrama	201	7	10	54	--	10	18	1	301	
Juslarrocha	75	10	10	23	1	10	3	--	132	

Mendillorri	88	17	12	32	1	8	10	29	197
Milagrosa	50	15	10	12	--	8	--	17	112
Sanduzelai	60	14	10	33	1	10	3	--	131
Atari zabalean / Besteak	3	--	--	34	4	--	21	--	62
Guztira	656	130	98	244	8	77	60	98	1.371

1 Ikastaroetan parte hartutakoak
 Tertuliak Hitzaldiak
 Txangoak Bisitak
 Jaiak Ikus-kizunak
 Lehia-ketak
 Erakusketak
 Beste jarduerak Zinemabatzuk
 Inter_neterako konexio-guneak
 Hiri-bainu-etxea/Irakur-hartzaile keta-gelak
 Parte-kopurua

12.960	2.776	234	6.902	238	54.853	--	669	9.431	--	88.063
15.566	448	287	604	238	4.728	73	37	1.184	5.845	29.011
49.190	233	286	7.985	238	8.750	720	20	3.628	29.834	100.885
18.153	370	287	2.691	238	8.410	229	--	1.636	--	32.015
19.794	768	286	2.799	238	5.981	258	274	3.172	--	33.571
10.256	646	287	390	238	3.393	--	241	728	4.034	20.214
15.363	452	286	2.448	238	8.846	96	--	2.638	--	30.368
560	--	--	33.588	--	--	12.597	--	--	--	46.745

Txango/bisitari eta lehiaketa kopurua zentro guztien artean hainbanatzen da.

2015eko

parte- hartzaileak	Udalaren programak	Espazio- lagapenak
-----------------------	-----------------------	-----------------------

Kondestable	88.063	56.606
-------------	--------	--------

Zabalgunea	29.011	8.198
------------	--------	-------

Iturrama	100.885	114.268
----------	---------	---------

Juslarrocha	32.015	56.246
-------------	--------	--------

Mendillorri	33.571	27.043
-------------	--------	--------

Milagrosa	20.214	11.007
-----------	--------	--------

Sanduzelai	30.368	27.941
------------	--------	--------

Aire zabalean	46.745	
---------------	--------	--

Guztira	380.872	301.309
----------------	----------------	----------------

Erakusketak

Iruñeko Udalak zabalik du oraindik **Pablo Sarasateren ondarearen gaineko erakusketa iraunkorra**, musikariak Iruñeko Udalari egindako dohaintzaren funts nagusiak ikusteko aukera ematen duena. Kondestable jauregiko areto batean dago, eta, han, objektuak, partiturak, soinu-elementuak eta ikus-entzunezkoak daude.

2015ean, **aldi baterako 61 erakusketa** egin ziren, iazko kopuruaren antzekoa, Zitudadelako, Kondestable jauregiko eta Rodezno kondearen plazako erakusketa-aretoen artean. Doakoak izan ziren haiek guztiak, eta gehienek katalogo propioa ekarri zuten. **127.218 bisita** jaso zituzten. Erakusketa bakoitzean, batez beste, 1.500 eta 2.500 bisita bitarte izan ziren. Gainera, zenbait erakusketak gaingitu egin zituzten zenbateko horiek: David Rodríguez Caballero, Pedro Armestre eta Abel Azcona artistenak edo Nafarroako Komikiaren VI. Azoka., adibidez. Erakusketa gehienek dinamizazio-ekintzak izan zituzten: hitzaldiak, bisita gidatuak edo musika-emanaldiak, adibidez. 7.438 euro bildu ziren katalogoak salduz.

ERAKUSKETA	BISITA KOPURUA
Afrika behar-beharrezkoa Alfons Rodríguez	1.108
Luis Garrido. Pintatzen Izarbeibarren	966
Mikel Esparza. Nire jendea eta beste gauza batzuk	1.706
Alicia Otaegui. <i>Zer ote barruan...?</i>	835
Alfredo Sada elkarteak. <i>Kale bizidunak</i>	1.082
Gardena taldea: Hiri-paisaia	1.579
Paco García Barcos ++ artista gonbidatuak <i>La vida instrucciones de uso contra el abuso</i>	1.670
Jokin Manzanos	848
Juanjo Lazcano. Gozamenen lorategia	1.652
José Ansoain Evocaciones	1.192
Dick Recalde. Mapas sin territorio	959
Jesús Alberto Eslava. <i>1980-2014</i>	1.372
Alfredo Zubiaur. <i>A hidden ecological economy</i>	1.413
José Antonio Olaiz. <i>Objetivo: el segundo elemento</i>	1.861
Pauline Bastard, Raphael Dallaporta, Cécile Mestelan, Regis Perray. Time after time	878

Tomás Sobrino. "Diálogo"	2.536
<i>Emakumeak Iruñeko Udalaren Arte Garaikidearen Bildumaren Katalogoan</i>	1.880
30. urteurrena Arte Gaztearen Topaketak	Zehaztu gabe
Keiko Hoshino. <i>Watercolors of Keiko Hoshino</i>	2.469
Víctor Arrizabalaga. <i>El rincón de las palabras</i>	2.123
Mariano Royo	2.261
Juan Carlos Pikabea. Zentzumenaren lilura.	2.964
Josetxo Santos Curvarte, plegarte	1.390
Artea Oinez	Zehaztu gabe
Virgina Santos. En el bosque	2.572
Mireya Martín Larumbe. <i>Les flugs du sang des morts pavivant les fontains</i>	2.030
<i>Bidasoako maisuak. Inspirazioa eta dedikazioa</i>	2.960
Pedro Marco Landa. Kaos ordenatua	1.492
Patxi Uriz. Kumano kodo	1.524
Jesús Ukar Muruzabal. Cercanías	2.007
Blanca Abajo. Entre suelos y paredes	1.159
Gerardo Sacristán.	1.621

<i>Oberenaren gaineko erakusketa 75. urteurrena</i>	Zehaztu gabe
<i>2015eko sanferminetako kartelak</i>	6.565
Pedro Armestre. Pasioak hartaratuak	11.527
David Rodríguez Caballero. Citadelle	7.527
Julen Alberdi, Sandra Alcalá, Haizea Barcenilla, Edurne González, Claudia Lorenzo, Amaia Molinet, Damaris Pan, David Pavo eta Camilo Torres. Herliebe	2.477
Joaquín Lecumberri. Trantsizioa	2.019
Javier Soto. Lux habitat	3.257
<i>Nafarroako Komikiaren VI. Azoka</i>	5.328
Mikel Cabrerizo. <i>Eremutik at</i>	1.787
Juan Carlos Olaetxea. <i>Disfrute de la naturaleza en el arte</i>	3.450
Moisés Gil Kanpotik barrura.	1.586
Martín Peño. Itxurak. Jantziak	2.147
Julia Juániz. Alas	797
Agustín Bobo, Xabier Barrios, Javier Arbizu eta Alba Armendariz <i>Artista Gazteak, 2014 lehiaketaren irabazleak:</i>	720
Consuelo Ochoa. Dolua	2.602
Edurne Ibáñez. Artea, moda eta birziklapena.	3.005

Mapamunditarrak 2015. Antipostalak	1.216
Juan Bautista Ilundáin. Ayer & hoy	1.842
Juan Azkárate. Zuhaitzak Power	2.425
Laura Sogues. Conectando	734
Iruña marraztu - 2015	576
Ione Atenea. 24/07	1.309
Afrika behar-beharrezkoa. Elise Fitte-Duval. Dakar. Gorputzez gorputz.	1.926
Alfredo Sada elkarte. Itzalari gorazarrea.	1.728
Sergio Vera. Colossus	1.464
Carlos Pascual eta Emilio Gañán. Elkarriketak	448
José M ^a Monguillot	777
Abel Azcona. Des-hobiratuak	7.870
GUZTIRA	127.218

Iruñeko arte garaikidearen eta eskultura publikoen bilduma

Iruñeko Arte Garaikidearen Bildumak 600 artelan baino gehiago biltzen ditu, eta haiek guztiak datu-base batean katalogatuta daude; alorrak egiten du datu-base hori, eta etengabe berraztertzen eta handitzen du lan gehiago edo badauden lanei buruzko datu gehiago agertu ahala. XX. mendearen azken herenetik gaur egun arte sortutako lanak dira. Nafarroako sortzaile nagusien lanak daude bilduman, baita nazioko zein nazioarteko ospea duten zenbait egilerenak ere. Udalak berak eskuratu ditu pieza gehienak, baina dohaintzetatik datozen piezak ere badira.

Bildumako funts guztiak –pieza bakoitzaren irudiak eta xehetasun teknikoak eta guzti– erakusten dituen webgunea abian jartzea izan zen 2015ean zehar egindako lan nagusia. Bilatzeko eta kontsultatzeko sistema

batzuk ditu, eta azken urteotan bilduma ezagutzeko aukera eman duten erakusketa nagusien historiko bat ere.

2015ean, zabaldu egin zen bilduma, 3 obra berri sartu baitziren, haien jabeen dohaintzei esker: ‘Shigatsu No Kabe’, Blanca Abajorena; ‘From the wall of Pamplona with white flowers’, Keiko Hoshinorena; eta ‘Fotografías’, Pedro Armestrearena. Gainera, funts propioak zituen erakusketa bat ere egin zen, ‘Indarretik sotiltasunera”, emakumeek egindako lanen gaineko begirada bat. Bestalde, bildumaren zenbait lan eman ziren bi erakusketa egiteko, bata Baionan eta bestea Madrilan.

2015ean, Iruñeko Udalaren **hiri-eskulturen berri emateko eta haiek zaintzeko planaren** ekintzak egiten hasi ziren. Horrela, obrak ezagutarazteko, udal-eskulturen webgunea eguneratu zen, eta Jesús Alberto Eslava eskultorearen banakako erakusketa bat egin zen. Aldi berean, kontrola sistematizatzeko, eredu-fitxa bat diseinatu zen, bete beharrekoa. Azkenik, Eduardo Carreteroren “Pablo Sarasate” eskultura zaharberritu zen, eta Dora Salazarren “Bestiarios 1 y 2” lanak kendu ziren.

Liburutegiak

Hirian **bederatzi liburutegi publiko** dira eta Nafarroako Gobernuarekin egindako hitzarmenaren bidez kudeatzen dira: Txantrea, Etxabakoitz, Iturrama, Mendillorri, Milagrosa, Sanduzelai, San Pedro, Yamaguchi eta San Frantzisko.

Iruñeko liburutegi publikoetako **dokumentu-funtsean** 253.508 dokumentu daude: liburuak, aldizkariak eta aldian behingo argitalpenak (%83) eta soinuak, ikus-entzunezkoak eta elektronikoak (%17). Udalak 70.000 euro inbertitu zituen dokumentu berriak eskuratzeko.

Txantrea, San Pedro eta Yamaguchiko liburutegiak dira funts gehien dituztenak (35.000 ale baino gehiago); Milagrosa eta Sanduzelaiko liburutegiak datoz gero (30.000 ale inguru); gainerakoak nahiko urrun daude, 20.000na ale inguru baitituzte.

Liburutegia	Liburuak	Aldizkariak izenburuak	Ikus-entzunezkoak eta soinuak	Elektronikoak	Gainerakoak	Guztira	Publik.	Erregistro automatikoa Katalogoa
Txantrea	31.570	188	6.181	596	9	38.544	46	38.590
Etxabakoitz	19.379	20	2.722	565	--	22.686	4	22.690
Iturrama	15.743	60	5.342	210	6	21.361	31	21.162
Mendillorri	14.989	19	3.633	146		18.787	19	18.806
Milagrosa	27.770	27	3.538	621	5	31.248	209	31.457

San Frantzisko	16.554	13	2.680	51	11	19.309	13	19.322
Sanduzelai	25.279	98	3.733	79	--	29.189	33	29.222
San Pedro	32.189	176	3.837	610	--	36.812	189	37.001
Yamaguchi	28.757	17	5.890	134	161	34.959	69	35.028
Guztira	212.230	618	37.556	3.012	192	252.895	613	253.508

Maileguei dagokienez, oro har, Iruñeko bederatzi liburutegiek 202.000tik gora liburu utzi zituzten 2015ean, hau da, aurreko urtean baino % 9,40 gutxiago. Yamaguchi eta San Frantzisko liburutegiak dira maileguz dokumentu gehien utzi dituztenak, 30.000 mailegu baino gehiagorekin. Liburuen mailegua nagusitzen da (% 61) ikus-entzunezko eta soinukoen gaineratik (%39); halere, Iturrama, San Frantzisko eta Yamaguchiko liburutegietan parekatzen ari da ikus-entzunezkoen eta liburuen mailegua.

LiburutegiaLiburuakAldizkariakIkus-entzunezkoakElektronikoakGainerakoakGuztira

Txantrea	14.801	257	9.477	97	0	24.632
Etxabakoitz	1.288	0	130	8	5	1.431
Iturrama	15.122	298	12.933	2		28.355
Mendillorri	15.507	431	8.696	148	0	24.782
Milagrosa	10.669	305	5.687	67	0	16.728
San Frantzisko	15.913	320	15.172	57	16	31.478
Sanduzelai	10.561	164	4.322	40	0	15.087
San Pedro	19.580	266	8.015			27.861

Yamaguchi	18.446	388	12.456	11	773	32.074
GUZTIRA	121.887	2.429	76.888	430	794	202.428

Iruñeko liburutegi publikoetara egindako **bisitei** dagokienez, 495.114 pertsona joan ziren haietara, eta San Frantzisko liburutegia izan da bisitatuena: 85.214 bisitari. Liburutegietan **izena emandako pertsonak** 54.063 ziren, eta, haietatik, 12.039 Yamaguchiko liburutegian zeuden izena emanda; hain zuzen ere, hori da izena emandako pertsona gehien dituen liburutegia; Etxabakoizkoa da gutxien dituen, 678 lagun baitaude han izena emanda. Liburutegi guztietan hazten da urtez urte izena emandakoen kopurua (egonkorra da joera, urtero % 4koa baita). San Pedroko liburutegia izan zen nabarmengarria 2015ean, 329 alta berri bildu baitzituen; orain, 5.467 pertsona daude bertan izena emanda.

Liburutegia	Bisitaria	Erabiltzaile berrien alta 2015ean			Izena emandako erabiltzaileak guztira		
		Haurrak	Helduak	Guztira	Haurrak	Helduak	Guztira
Txantrea	69.496	45	206	251	1.168	6.357	8.027
Etxabakoitz	5.171	5	24	29	94	526	678
Iturrama	57.517	94	168	262	814	4.766	6.104
Mendillorri	79.768	111	129	240	1.226	4.091	5.797
Milagrosa	45.883	54	130	184	587	4.668	5.623
San Frantzisko	85.214	98	154	252	489	1.155	2.148
Sanduzelai	47.707	60	181	241	899	3.627	5.008
San Pedro	46.332	88	241	329	1.470	5.467	7.595
Yamaguchi	58.026	65	122	187	670	12.039	13.083
Guztira	495.114	620	1.355	1.975	7.417	42.696	54.063

Udal-liburutegiek **irakurtzera animatzeko jarduerak** egiten dituzte urtean zehar, bai haurrei, bai helduei zuzendutakoak. 313 jarduera programatu ziren 2015ean, eta guztira 24.157 pertsonak parte hartu zuten. Jardueren % 30 haurrei zuzendutakoak dira.

Astean edo hilean behin, liburutegi bakoitzak irakurketaren inguruko zenbait ekitaldi antolatzen ditu, hala nola irakurketa-klubak, ipuin-kontalariak, kontzertuak, zinema-proiektzioak edo hitzaldiak, betiere izaera ludiko eta hezitzailearekin, eta parte hartzera bideratuak. Doanekoak dira guztiak. Jarduera horietako batzuk urtemugak ospatzeko antolatzen dira, esaterako Emakumeen Nazioarteko Egunekoa (martxoaren 8an), Liburuaren Egunekoa (apirilaren 23an), edo Eguberrietan.

Lehiaketak

Iruñeko Udaleko Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorrak, bestalde, hainbat lehiaketa bultzatzen ditu. Horietako bat **Sanferminak iragartzeko kartela** aukeratzekoa da; berriz ere bi fasetan egin zen. Lehenbizikoan, epaimahai batek 8 kartel aukeratu zituen. Bigarrenean, Iruñean erroldatutako pertsonak eman dezakete botoa; 5.124 pertsonak hartu zuten parte, hau da, 2014an baino % 47,4 gehiago. 2015ean, “Kilikón” lanak irabazi zuen, Javier Erice Larumbe pintore iruindarrarenak, boto guztien % 29,4 lortuta. Lehiaketaren 3.600 euroko saria erdietsi zuen, beraz.

Aurkeztutako 462 karteletatik, 202 (% 43,9) Iruñetik zetozen, eta beste 97, Nafarroako beste herri batzuetatik; hartara, parte hartutako lanen % 64,9 Nafarroatik heldu ziren. Era berean, Espainiako beste autonomia erkidego batzuetatik jaso dira lanak: 155; horien artean daude Euskaditik etorritako 31, eta Valentziako Erkidegotik eta Madriletik iritsitako 24. Aurten, 8 kartel jaso dira atzeritik (kopuru osoaren % 1,7). Ekainaren 26tik uztailaren 24ra bitarte egin zen epaimahaiak hautatutako kartelen erakusketa, eta 6.565 bisita izan zituen.

‘**Dibuja Pamplona/ Iruña Marraztu**’ lehiaketa Nafarroako Unibertsitateko Arkitektura Eskolarekin batera egiten da, eta XV. ediziora iritsi zen iaz; sari gisa, 3.840 euro banatu zituen, marrazteko materialean. Iruñeko udaletxearen fatxada eta ingurua aukeratu zen, eta 14 ikastetxetako 74 ikasle aritu ziren. Hona hemen irabazleak: Daniel Cebrián, Sara Aldaya eta Pablo Clemente, ‘A’ kategorian (Lehen Hezkuntzako 3. eta 5. Ikasmailetakoak), eta Aitor Ariz, Enrique Larraz eta Michelle Morales, ‘B’ kategorian (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. ikasmailetakoak)

Berriz ere, bi urtez behingo formatuan egin da **Iruñeko Artista Gazteak lehiaketa**. Beraz, ez zen deialdirik egin 2015ean, eta 2014an irabazitako lanak erakutsi ziren. Erakusketa Iruñeko Ziadadelako Arma Aretoaren ganbaran egin zen, urriaren 9tik azaroaren 8ra bitarte, Agustín Bobo, Xabier Barrios eta Javier Arbizu artisten lanekin. Alba Arméndariz egileak uko egin zion erakusketan parte hartzeari.

Udalaren programak

Kulturako Alorrak kontzertu-ziklo batzuk antolatzen ditu urtero, eta guztiak finkaturik daude jada hiriko kultur programazioan, hala nola “Ziadadelarte”, “Hemengo antzerkiaren erakustaldia”, “Musika, otoitz egiteko garaian”, “Europako Musika Eguna”, “Jazza, kalean”, “La Pamplonesa bandaren kontzertuak” edota “Eguberrietako kontzertuak”. Programa horietan guztietan, 52.595 pertsonak hartu zuten parte, 117 emanalditan. Sanferminetako jardueretako 1.385.860 ikusleak gehitu behar zaizkie zifra horiei.

La Pamplonesa musika-bandarena izan zen entzule gehien bildu zituen zikloa, 15.238 pertsona joan baitziren 23 kontzertutara. **Musika, otoitz egiteko garaian** zikloak ere jendetsuenetakoa izaten jarraitzen du. Aste Santuaren inguruan egiten da, eta, hartan, 14 emanaldi egin ziren hiriko hainbat elizatan; guztira 5.485 lagun inguru bertaratu ziren. Nabarmentzeko modukoak dira, baita ere, bi **piknik musikalak**; haietako bat Iruñeko Orfeoia ren koru guztiekin egin zen taldearen izena duen parkean berean; bestea, harresietan egindako Fortius programari akabera emateko antolatu zen. 2.000 eta 3.000 pertsona bitarte bertaratu ziren ekainean ‘**Jazza, kalean**’ zikloan egindako 4 kontzertuetara, Zitudadelan, ‘**Hemengo antzerkiaren erakustaldian**’ zikloko 13 emanaldietara eta Gazteluko plazan udako arratsaldeetan **txistulari eta gaiteroekin** egiten diren **dantzaldietara**.

‘**Zitudadelartea**’ zikloak seigarren edizioa bete du jada, eta, azken lau urteotan, Europak finantzatu du programazioaren % 65, Fortius proiektuaren bitartez –Iruñeko eta Baionako harresi-ondarearen balioa handitu nahi du proiektuak–. Europar Batasunak laguntzen du diruz Fortius proiektua, FEDER-EGEF funtsen bidez, Pirinioetako Lan Komunitatearen POCTEFA Espainia, Frantzia eta Andorraren Lurralde mailako Programa Eragilearen barnean. ‘Harresiak Dantzan’ programaren barnean, dantza bertikalaren hiru ikuskizun egin ziren Guadalupeko bastioian; horietara, 1.667 pertsona joan ziren, aurreko urtea baino % 43 gehiago.

Bukatzeko, Iruñeko Udalak **Eguberrietako programa** proposatzen du, Udalaren hainbat alorrek egina; haietatik, 34 Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko arlokoak dira. Kontzertuak, antzerkia, hitzaldiak, zinema eta tailerrak daude jende guztiarendako programazio horren barnean. 13.885 lagunek hartu zuten parte. Gainera, beste 2.000 hurbildu ziren Udaletxe plazara Olentzerori ongi etorria egitera.

Programak	Ekitaldi-kopurua.	Parte-hartzaileak
Musika otoitz egiteko garaian	14	5.485
Jazza, kalean	4	2.140
Europako Musika Eguna	3	1.100
Dantzaldia, txistulari eta gaiteroekin	18	2.250
Zitudadelartea	3	1.667
Sabicasi omenaldia	1	300
Piknik musikalak	2	5.500
Hemengo antzerkiaren erakustaldia	13	2.630

Santa Zezilia	1	400
La Pamplonesa banda	29	11.772
Eguberrietako kontzertuak	34	13.885
Ongietorria Olentzerori	1	2.000
GUZTIRA	117	52.595

Bada beste jarduera bat Udalak antolatzen duena: ikastetxeen bisitak Erraldoien eta Buruhandien Konpartsako figurak bertatik bertara ezagutzeko; 4.410 ikasle egon ziren horietan, 116 taldetan banatuta.

Diru-laguntzak eta lankidetzak-programak

Jarduerak antolatzeaz gain, Udalak profesionalak ez diren talde artistikoak sustatzeko zikloak ezartzen ditu, entitateei diru-laguntzak ematen dizkie kultur jarduerak antolatzeko, eta zenbait urtetarako kontratuak eta hitzarmenak sinatzen ditu entitateekin eta musika- zein arte-taldeekin. Azken horien barnean, honako diru-laguntza hauek ematen ditu: La Pamplonesa udal-bandari, 931.241 euro; udal-gaiteroei, 42.594 euro; udal-txistulariei, 56.283 euro; Olentzeroren Lagunak elkarteari, 15.000 euro; Errege Magoen Kabalgata elkarteari, 50.000 euro; eta Iruñeko Orfeoari, bere 150. urtemugan, 45.000 euro.

Halaber, 377.000 euroko diru-laguntza eman zien 32 entitatei 2015ean kultur- eta arte-jarduerak egiteko. Deialdiak bi laguntza-ildo ditu: bata, ekoizpen-jardueretarako, eta bestea, kultura sustatzeko eta/edo zabaltzeko proiektuetarako.

2015ean diruz lagundutako erakundeak (A epigrafea ekoizpenari dagokio, eta B epigrafea zabalkundeari).

Elkartea	Epigrafea	Diru-laguntza (eurotan)
Iruñeko Ganbera Abesbatza	A	25.000,00
Almudena González Lobón	A	4.370,57
Análisis cuerpos movimiento. Fuera del eje A		4.496,65
Arquetipo Comunicación SL	B	4.452,13

Nafarroako Kazetarien Elkartea	B	1.923,78
E 7.2 Elkartea	A	2.740,00
Gayarre Operaren Adiskideen Elkartea (AGAO)	A	27.884,84
Mataladanza elkartea	A	1.033,50
Artearen Adiskideak musika-elkartea	B	2.367,20
Nueva Babel elkartea	A	2.000,00
Nafarroako Ganbera Opera elkartea	A	25.000,00
Nafarroako Retina elkartea	B	1.500,00

Tiza elkartea

